

## MARTXOAK 8-KO EGITARUA

**Martxoak 1:** Kantupotea, Martxoak 8 girotuz.

Herriko tabernetatik zehar, Lemoako Abesbatzarekin batera herria girotuko dugu Martxoak 8rako.

**Martxoak 7:** “Emakumeen memoria historikoa” hitzaldia eta lehiaketaren aurkezpena.

Lemoan memoria historikoaren lanketa egingo dela aprobetxatuz, emakumeek herriari egindako ekarpen desberdinak azaleratu eta balioa emateko antolatu ditugu bi ekintza hauek. Izan ere, emakumeek izandako bizipen, ardua eta egindako ekarpenei historikoki eman zaien balio urria dela eta, hauen inguruko ezezagutza eta ikusezintasuna ohikoa izaten da. Horregatik, ezinbestekoa ikusi dugu emakumeek udalerrinari egindako ekarpen desberdinen inguruko hausnarketa lanketa hau abiatztea. Horretarako, alde batetik gai honen inguruko hausnarketa burutuko dugu Aintzane Rincon historialariarekin eta, gainera, emakumeek Lemoan izandako protagonismoa eta egindako ekarpen desberdinak berreskuratzeko lehiaketa jarriko dugu abian.

**Martxoak 9:** Genero parekidetasunerako diagnostikoaren amaiera jaia.

Irailan hasi genuen herriko emakumeek eta gizonen bizitzan dituzten egoera eta beharrianak identifikatzeko diagnostiko eta martxoan bukatzen dugu. Prozesu oso aberasgarria izan da: adin, genero eta egoera desberdinetako jendea bildu gara, ekarpen oso interesgarriak eginez. Horregatik, ibilbide hau jai batekin amaitzea erabaki dugu. Jai honetan, prozesu osoan parte-hartu duen jendearekin egindako grabaketa jarriko dugu, ondoren Martxoak 8ko mural kolektibo bat egingo dugu eta amaitzeko luntx txiki bate gongo da. Bitartean, umeei zuzendutako dinamizazioa izango da.